# Beste Iragarki Ofizial Batzuk

## ZERGA ADMINISTRAZIORAKO EUSKADIKO ORDEZKARITZA BEREZIA

IRAGARKIA, Euskadiko Zerga Admnistraziorako Agentzia Estatalaren Ordezkaritza Berezian egin gabe dauden jakinarazpenei dagokiena. 13307

# Xedapen Orokorrak

## LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

### Zk-3667

133/2004 DEKRETUA, ekainaren 29koa, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen egitekoak, osaera eta jarduketa erregimena ezartzeari buruzko Dekretuaren seigarren aldaketa egiteko dena.

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen azken xedapenetako lehenengoak finkatzen duen legezko agindua betez, 263/1990 Dekretua onetsi zen, hain zuzen, urriaren 2koa eta Euskal Autonomi Elkartearen Lurraldea Antolatzeko Batzordearen egitekoak, osakera eta iharduketa erregimena ezartzeari buruzkoa.

Dekretuaren aldaketa administrazio-lana eraginkorragoa izan dadin egiten da, izan ere, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak osoko bilkuran aztertzen dituen gaiak gutxitu egin behar direla ikusi baita, hartara organo horren aholkularitza-lana oztopatzen ari diren garrantzi gutxiko espediente ugarien txostenak arinago egin daitezen.

Administrazioari ezarritako bizkortasuna gauza dadin, berridatzi egiten da 263/1990 Dekretuaren 9. artikulua eta horrela Osoko Bilkura arduratuko da hirigintza arloko zailtasun handiko aldaketez eta gainera bereizi egingo dira bizitegi-lurzorua eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua. Bizitegi-lurzoruari dagokionez, hirigintza-planeamenduan aurreikusitako lurzoruaren edukiera ehuneko berrogeita hamar baino gehiago aldatzen bada eta aldaketak berrogeita hamar etxebizitza baino gehiagori eragiten badie, Batzordearen Osoko Bilkurak txostena egingo du. Jarduera ekonomikoetarako lurzoruari dagokionez, planeamenduan aurreikusitako lurzoruaren edukiera ehuneko berrogeita hamar

# Otros Anuncios Oficiales

## ADMINISTRACIÓN TRIBUTARIA DELEGACIÓN ESPECIAL DEL PAÍS VASCO

ANUNCIO de notificaciones pendientes de la Delegación Especial de la Agencia Estatal de Administración Tributaria de País Vasco. 13307

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

### N°-3667

DECRETO 133/2004, de 29 de junio, de sexta modificación del Decreto por el que se establecen las funciones, composición y régimen de funcionamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

La Disposición Final Primera de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, establecía un mandato legal en cumplimiento del cual se aprobó el Decreto 263/1990, de 2 de octubre, por el que se establecen las funciones, composición y régimen de funcionamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

La modificación objeto del presente Decreto obedece a cuestiones de eficacia administrativa, al haberse constatado la necesidad de limitar el número de asuntos a conocer por el Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en aras a la consecución de una mayor agilización en el despacho de informes que por su escasa entidad y gran número, obstaculizan la labor consultiva de este órgano.

En cumplimiento del deber de celeridad impuesto a la Administración, se establece una nueva redacción al artículo 9 del Decreto 263/1990, reservando así para el Pleno, aquellas modificaciones de mayor complejidad urbanística diferenciando, además, entre suelo residencial y de actividades económicas. En el caso del suelo residencial, el Pleno de la Comisión informará sobre aquellas modificaciones de planeamiento urbanístico que supongan una alteración de la capacidad del suelo prevista en el planeamiento, superior al cincuenta por ciento y afecte además a más de cincuenta viviendas. En el caso del suelo de actividades económicas, pasarán a ser informados por el Pleno aquellas modificaciones

baino gehiago aldatzen bada eta aldaketak hiru hektareatik gorako azalerari eragiten badio, Osoko Bilkurak txostena egingo du.

Ondorioz, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriaz, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko ekainaren 29an egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.–* Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen egitekoak, osaera eta jarduketa erregimena ezartzeari buruzko urriaren 2ko 263/1990 Dekretuaren 9. artikulua aldatu egiten da eta honela geratzen da:

«9. artikulua

1.– Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen Planeamendu sekzioak hiri-antolamendurako plan orokorren aldaketei, planeamenduko arau subsidiarioen eta arau osagarrien aldaketei, eta hiri-lurra mugatzeko proiektuen aldaketei buruzko espedienteen txostena egingo du behin betiko onartu baino lehen, ondorengo kasuetan izan ezik:

a) Bizitegi-lurzoruari dagokionez, berrogeita hamar etxebizitza baino gehiagoko aldaketa bada eta horrez gain, planeamenduan aurreikusitako bizitegi-edukiera ehuneko 50 baino gehiago aldatzen bada.

b) Jarduera ekonomikoetarako lurzoruari dagokionez, aldaketak hiru hektarea baino gehiagoko lursailari eragiten badio eta horrez gain, planeamenduan aurreikusitako edukiera ehuneko 50 baino gehiago aldatzen bada.

c) Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek edo Lurraldearen Antolamendurako zatiko planek ezartzen dituzten babes bereziko guneei eragiten badie aldaketak.

2.– Halaber, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen Planeamendu sekzioak hirigintzako jarduketa-programei eta plan bereziei buruzko txostena egingo du, baita horien aldaketei buruzkoa ere.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko ekainaren 29an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu
eta Ingurumen sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

que supongan una alteración de la capacidad del suelo prevista por el planeamiento superior al cincuenta por ciento y que afecten además a una superficie de terreno superior a tres hectáreas.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el 29 de junio de 2004,

DISPONGO:

*Artículo único.–* El artículo 9 del Decreto 263/1990, de 2 de octubre, por el que se establecen las funciones, composición y régimen de funcionamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, queda modificado según la siguiente redacción:

«Artículo 9

1.– El informe previo a la aprobación definitiva será emitido por la Sección de Planeamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en los expedientes de modificaciones de los Planes Generales de Ordenación Urbana; modificaciones de Normas Complementarias y Normas Subsidiarias de Planeamiento; y modificaciones de Proyectos de Delimitación de Suelo Urbano salvo que:

a) En el suelo calificado como residencial se genere una modificación superior a 50 viviendas y superior además al 50% de la capacidad residencial prevista en el planeamiento.

b) En el suelo calificado como de actividades económicas se genere una modificación de planeamiento superior a 3 hectáreas y superior además al 50% de la capacidad prevista en el planeamiento.

c) Afecte a las Áreas de Especial Protección definidas en las Directrices de Ordenación del Territorio o en los Planes Territoriales Parciales.

2.– Serán informados también por la Sección de Planeamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, los Programas de Actuación Urbanística y los Planes Especiales, así como las modificaciones de ambos.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de junio de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio
y Medio Ambiente,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.